

6. AKTA.

2002ko maiatzaren 6an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA.**

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta biko apirilaren hemezortzian, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Portugal Arteaga j.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Obdu Lorenzo de Dios a.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du ezin-
etorria agertu Anjel Ouviña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela,
batzarraldia irekitzat eman du 12:45etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari
ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko 5. akta 2002ko apirilaren 18koa irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipazen den akta, Gobernu Batzordeak, bertako
zinegotzien aho batez, erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Akta-liburuan
transkribatzea.

2.- 02/5. kontu fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea 5/02 zka. daraman
kontu-fakturen zerrenda EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN
ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMOKO (199.905,66 euro) inportez,
proposaturiko zerrendari, hau da, JIMENEZ GARCÍA, JOSE ANGELEN 603-000-2002 fakturari
dagozkion 200.149,66 eurori 244 euro kenduz lortutako emaitza, faktura hau ez baita izan onartua,
mahai gainean geratu delarik geroago onartzekotan.

3.- Herriko Jaietarako gastu aurrerapena.

Alkate jaunak 2002ko apirilaren 25ean egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako
zinegotzien aho batez, erabaki du barruti bakoitzeko Jai-batzordeari ondoren aipatzen diren
kantitateak ematea Herri Jaiak antolatzeko:

- P. SAN PEDROKO JAI BATZORDEA: 25.920,- euro.
- P. DONIBANEKO JAI BATZORDEA: 25.335,- euro.
- P. ANTXOKO JAI BATZORDEA: 37.520,-euro.
- TRINTXERPEKO JAI BATZORDEA: 32.620,- euro.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-467/02 Baimenduaren kargura.

4.- "Pasai Antxoko Azoka birgaitzea" obraren 2. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aldeko txostena emanik, erabaki du "Pasai Antxoko Azoka birgaitzea" obraren 2. ziurtagiria ontzat ematea, Joan Kruz Altuna, Eduardo Montoia eta Jaime Vergel Obrako jaun Zuizendariek luzatua ERAILAN, S.A. enpresa kontratistaren alde EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA MILA LAUREHUN ETA LAU EURO ETA BAT ZENTIMOKO (171.404,01 euro) inportez.

Hau guztia D-463/01 Disposamenduaren kargura.

5.- "San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa" obraren 6. eta 7. ziurtagiriak.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea "San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa" obraren 6. eta 7. ziurtagiriak, Joan Karlos Lapazaran (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea) Obrako jaun Zuzendariek luzatua COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A. enpresa kontratistaren alde, HIRUROGEI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA ZORTZI ZENTIMOKO (60.136,08 euro) eta LAUROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI ETA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMOKO (81.367,97 euro) inportez hurrenez hurren.

Hau guztia 457/01 eta D-458/01 Disposamenduen kargura hurrenez hurren.

6.- 7. ziurtagiria: "C-1 Merkatuaren inguruko Antxo Hiriguneko Berrurbanizazioa" obrarena.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea "C-1 Merkatuaren inguruko Antxo Hiriguneko Berrurbanizazioa" obraren 7. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran, Igor Urrutia eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea) Obrako jaun Zuzendariek luzatua CONSTRUCCIONES DONOSTI enpresa kontratistaren alde HIRUROGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HAMAIKA EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMOKO (64.311,99 euro) inportez.

Hau guztia AD-1660/00-ren kargura.

7.- Hiritartze ekimenentzako laguntzak.

Gran Sol 9-ko jabekideek 2001ko abenduaren 21ean jarduera urbanizatzaileengatik dirulaguntza eskaera egin zuten, hain zuzen ere, eraikin guztian balkoien itxitura fatxadaren ikuspen arkitektoniko bakarria mantenduz jartzeagatik. Eraikuntzaren balkoi guztiak diseinu berarekin ixteko proiektua aurkeztu dute, eta Edurne Aperribay, Jesús Berasategui eta Carlos Callejo arkitektoek egina da.

Hau guztia ikusirik egokia ikusi da kasu honetan dirulaguntza berezia ematea esperientzi pilotoa den heinean eta besteentzako eredia izan daitekeelako

Hori dela eta Gobernu Batzordeak, aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Gran Sol 9-ko jabekideei Ekimen Urbanizatzaileengatik 2001eko abenduaren 21ean eskatutako 2100 Euro-ko dirulaguntza ematea obren proiektua idazteagatik gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- Aurrekontu Orokorrean Jarduera Urbanizatzaileentzat dagoen partidaren kargu ordaintzea dirulaguntza.

HIRUGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinarazi eta honen aurkako errekurtsoen berri eman.

8.- Ondare erantzukizunezko hainbat erreklamazio.

FERNANDO DA SILVA jaunak berraztertze errekurtsua aurkeztu du 2002ko urtarrilaren 21ean Gobernu Batzordeak harturiko erabakiaren aurka. Erabaki hark ondare erreklamazioa ezetsi egin zuen ez zelako kausazko loturarik frogatu erreklamatazaileak izandako kalteen eta udal zerbitzuaren funtzionamenduaren artean.

Kontutan izanik erreklamatazaileak eskaturiko frogak, eta bereziki Antonio Jiménez Vázquez Udal garbitzaileak egindako aitortpena, zeinek errekurtsuan egiten diren baieztapenak gezurtatzen dituen, Gobernu Batzordeak, aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- FERNANDO DA SILVA jaunak aurkezturiko berraztertze errekurtsua ezestea, goian aipaturiko arrazoiak direla medio.

BIGARREN.- Interesdunari erabakiaren berri ematea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri eman.

9.- Pablo-Enea, 14 kalean obrak egiteko baimena.

Manuel Maravalhas Da Costa Jaunak 2002-04-09an idatzia aurkezten du eta bertan obra txikietarako lizentzia eskatzen du Pasaian Trintxerpeko Pablo Enea 14.- 2. A etxebizitzan berritze lanak egiteko, hain zuzen ere, sukaldeko paretak pikatu eta zarpeatzeko, lauzak (azuleiu eta baldosak) jarri, balkoiko atea kendu eta plaketa jartzeko,

Udal Teknikari aholkulariak txostena egin du etxebizitzara ikuskapen bisita egin eta gero. Bere txostena aldekoa da sukaldeko paretak pikatu eta zarpeatzeko, lauzak (azuleiu eta baldosak) eta plaketak jartzeko, baina ez balkoiko atea kentzeko, etxebizitza horretako balkoia aluminiozko arotziarekin ixterakoan, Pablo Enea 14 eta 16ko etxebizitza askotan bezela, Pasaiako Udal Ordenantzak urratu baitira, hain zuzen ere, 060.6 artikulua: *“Hegalen kontzeptuak (irekiak, erdi-itxiak eta itxiak) iraunkorrak izango dira denboran, hots, ezingo da geroago egindako itxiturarekin hegal irekiak itxi bihurtu, Planeamendu Arloetan zehazten diren salbuespenetan izan ezik”*.

Hori dela eta Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ukatzea Manuel Maravalhas Da Costa Jaunari balkoiko atea kentzeko lizentzia, balkoi itxiera lizentziarik gabe egin zuen eta udal Ordenatzek eskatzen duten eraikuntzen kanpoko itxura bateratua eta homogenea hondatzen baitute.

Halere, lizentzia eman dakioke eskatu eta gero, Balkoien Itxitura Arautzen duen Ordenantzan ezarritakoa jarraituz. (G.A.O. 2001-10-25).

BIGARREN.- Ez zaio udal eskubiderik likidatu behar, Alkateak emango dion obra baimenarekin likidazioa egingo baitzaio.

- ◆ Gaizerrendatik at eta bertan sartzea bertako zinegotziek aurrez aho batez onarturik, hurrengo akordioa hartu da:

10.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak modifikatzea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2002ko maiatzaren 3an aurkezturiko proposamena Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak modifikatzeaz, 1/2002 zka. daraman proposamenari buruz, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Gobernu Batzorde honek 2002ko otsailaren 25eko batzarraldian onartutako 1. proposamenari dagozkion Laguntzak modifikatzea, espedientean agertzen den onuradunarenak eta azaltzen diren zioak direla eta, bertan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inportea Gizarte Larraldiko partidara berriro itzultzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzailletza Sailari ematea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:30etan batzarraldia amaitutzat eman da, honen edukia akta honetan jasoz eta hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.